

Arartekoaren 2015R-2586-12 Ebazpena, 2015eko maiatzaren 27koa. Horren bidez, Bilbao Bizkaia Uren Partzuergoari gomendatu genion berehala ur beroko zentralizatutako instalazioei aplikatzen dien ur eta saneamendu tarifetan kaltetutako etxebizitza kopurua kontuan hartzen duen zuzenketa faktoreren bat gehitzeko.

Aurrekariak

1. Etxejabeen elkarte batek Bilbao Bizkaia Uren Partzuergoak ur beroko zentralizatutako instalazioei ezartzen dien ur eta saneamendu tasaren fakturazio sistemarekin duen desadostasuna adierazi zuen, eta indarrean dagoen tarifa sistema aldatzeko beharra azpimarratu zuen, modu batean, hornitzen diren familia kopurua kontuan hartzeko.

Bilbao Bizkaia Uren Partzuergoaren aurrean erreklamazioa jarri zuten eta honek bere zerga ordenantzaren aurreikuspenak jakinarazi zizkien, honakoa ere zehaztuz: *“el prorrateo de consumo entre el número de viviendas abastecidas se aplica a los casos de contador general de agua fría, no así en agua caliente”*.

Kaltetutako etxejabeen elkarteak ur beroko eta berokuntza zentraleko sistema dauka, 316 etxebizitzetara zerbitzua ematen diena eta ur kontsumoa kontagailu bakar baten bidez fakturatzen da.

Bilbao Bizkaia Uren Partzuergoak ezartzen duen tarifa progresiboa da eta hiru tarteetan egituratzen da, egindako kontsumoaren arabera. Horrek, etxejabeen elkarte honek ur beroko zentralizatutako instalazioa mantentzeko egiten duen ur kontsumo ia osoa tarifa handienaren arabera fakturatzea dakar.

2. Ararteko erakundeak 1407/2012/22 espedientearen barruan, Uren partzuergoari ur beroko zentralizatutako instalazioei ezarritako tarifa sistema berrikusteko egokitasuna planteatu zion, moduren batean hornitutako familia kopuruaren aldagaia kontuan hartzeko, ur eta saneamendu tarifen efektu progresiboa zuzentzeko. Bilbao Bizkaia Uren Partzuergoak proposamena aztertzeko prest zegoela jakinarazi zigun, zerga ordenantza aldatzeari begira.
3. Kexa berri honekin, tarifen egokitzapenaren egokitasuna azpimarratu genuen eta Partzuergo horrek 2013ko zerga ordenantzaren barruan sartzea egoki ikusi zuen ekimenen inguruko informazioa eskatu genuen.
4. Gure informazio eskariari erantzunez, Bilbao Bizkaia Uren Partzuergoak zehaztu zuen berogailu eta ur beroko zentralizatutako instalazio bati bakarrik zerbitzua ematen dion ur kontsumoaren kasuetan hornitutako famili kopuruaren aldagarria jasotzeak pertsona hauek saritutako blokeak izatea suposatuko

lukeela, ur hotza eta beroarentzat. Horrek, aldi berean, etxean ematen den ur hotzaren eta beroaren kontsumo guztia kontagailu bakarrean erregistratzen dutenekiko bidegabekeria litzatekeena.

Partzuergoaren ustez, egokiena zentralizatutako kontagailuetatik hornitutako etxebizitzaren kontsumoen batz bestekoa kalkulatzeko da eta ur bolumen hori etxebizitza bakoitzean instalatutako kontagailuetan erregistratutako ur hotzaren kontsumoari gehitzea.

Bilbao Bizkaia Uren Partzuergoak, egungo bere araudiaren gorabeheren jakitun, tratu diskriminatzailea saihesten duen konponbide bat aurkitzeko bere borondatea agertu du eta guri horien berri emateko konpromisoa hartu zuen.

5. Ekitaldia aurrera zihoanez eta arazoa konpontzeko bideen aukeren gainean ezer jakinarazi ez zigutenez, 2015eko zerga ordenantzen aldaketa prozesua burutu aurretik, kexaren arrazoiak jarraitzen zuela gogorarazi genuen baita arazo honi konponbide egoki bat topatzeko beharra ere.
6. Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak honakoa adierazi zuen bere erantzunean:

“Gure erantzuna honakoa da: ezin izan dira arazoa konpontzeko aldaketak egin; arazoaren konplexutasunari buruz, honako oharra egiten ditugularik:

Ur tarifaren ezaugarriak

Ur tarifa tarifa binomio eta progresiboa da. Binomioa da; izan ere, kuota finkoa edo benetan egindako kontsumoaren kuota independentea du, gehi zenbateko aldakorra, non aleko prezioa fakturatzen den hornitutako metro kubiko bakoitzeko.

Progresiboa da; izan ere, zati aldakorrean, metro kubikoaren prezioa handituz doa, eta aleko prezioak kontsumoak gora egiten duen neurriko batez bestekoa baino handiagoak dira.

Esku artean dugun tarifa helbideratuan, adibidez, 90 eguneko epean kontsumitzen diren lehen 25 m³-ak 0,5197 €/m³ prezioan fakturatuko dira; 25 m³ eta 75 m³ arteko tartean kontsumitutako bolumena 0,6382€/m³ prezioan fakturatuko da, eta, 75 m³-tik gorako bolumenak, 1,1458 euroko aleko prezioan.

Kexa eragin duen kasuistika

Zailtasuna zenbait jabe-komunitatetan fakturatzeko dagoen konplexutasunean datza; izan ere, aipatutako komunitateetan, ur hotzaren hornidura banan-banakoa da etxebizitza bakoitzerako, eta kontsumoa banakako kontagailuen

bidez kontrolatzen da; ur beroaren kontsumoa, ordea, komunitateko galdararen aurretiko galdara orokorraren bitartez kontrolatzen da.

Aipatutako horniduretan, honako berezitasunak gertatzen dira:

- *Kuota finkoa "ur hotz" gisa kontsumitutako bolumenak neurtzen dituen banakako kontratuan fakturatzen da.*
- *Banakako kontratuetan, nekez aplika daiteke tarifaren progresibotasuna, Partzuergoaren esparruko gainerako bezeroen baldintza berberetan, kontagailu horiek ez baitute neurtzen etxebizitza bakoitzean hornitutako bolumen osoa, soilik "ur hotz" gisa kontsumitutakoa baizik.*
- *Bestalde, kontagailu orokorrak jabe-komunitateak "ur bero" gisa kontsumitutako ur-bolumenak hornitzeko erabiltzen duen horniduraren bolumen osoa neurtzen du, eta, normalean, bolumena hain handia izaten denez, tarifa progresiboko aleko preziorik altuenak aplikatzen dira; horrek bezeroen kexak eragin ditu maiz.*

Hornidura-instalazioak lehenengo lerroaldean zehaztutako baldintzak betetzen dituen bitartean, ez da erraza irtenbide bat bilatzea, bezero horiek kontsumitutako bolumenek hartune bakarra eta etxebizitzako kontagailua duten hornidura instalazioek jasotzen duten tratamendu berbera jaso dezaten lortzeko.

Kontagailu orokorretik hornitutako etxebizitza kopurua kontuan hartzeak ere ez du lortzen kasuistika batean edo bestean dauden hornidurak modu homogeneo eta bidezkoan tratatzea; izan ere, modu horretan, tarifaren progresibotasuna ia-ia aplikatzen ezinezkoa izatea eragingo luke, benetan kontsumitutako bolumenak bi kontratutan banatuta baitaude; alderdi hori Uraren Legean eta Zuzentarau Markoan ezarritako printzipioen aurkakoa da.

Egoki fakturatzeko metodologia

Kasuistika bata zein bestea modu homogeneoan fakturatzek honakoa eskatuko luke:

- *Ur beroaren kontagailu orokorraren bitartez hornitzen den etxebizitza-kopurua jakitea.*
- *Kontagailu orokorrean erregistratutako kontsumoa hornitutako etxebizitza-kopuruaren artean zatitzea, etxebizitza bakoitzak kontsumitutako bolumena jakiteko (guztiek kontsumo berbera egiten dutela pentsatuta).*
- *Aurreko puntuan kalkulaturako bolumena etxebizitza bakoitzeko ur hotzaren banakako kontagailuetan erregistratutako bolumenetako bakoitzari gehitzea, eta, ondoren, kontratu horien fakturazioa egitea.*

Pauso horiek guztiak beharrezkoak dira fakturazio egokia egiteko; faktura gehiago konplikatu daiteke, ur beroaren kontagailuan erregistratutako

bolumena banakako kontagailuen artean zatitzen bada, horietan erregistratutako bolumenaren arabera; hori modu egokiagoan dator bat Uraren Zuzentarau markoaren eta Eusko Jaurlaritzaren Uraren 1/2006 Legearen printzipioekin, horien arabera, gehiago kontsumitzen duenak "gehiago ordainduko" baitu.

Kalkulu hori egoera horretan dauden Ur Partzuergoaren bezero bakoitzarentzat automatizatzea erabat ezinezkoa da gaur egun; beraz, ez da posible izan fakturazio-irizpideak aldatzea.

Hala ere, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa analisi-prozesu batean dago sartuta, merkataritza kudeaketaren aplikazio informatikoa aldatzeko, eta aplikazio berrietako batzuei esker kontagailu orokorren eta banakako arteko aldea fakturatu daiteke; horrek, egokitzapenen bat egin ostean, esku artean dugun kasuistika egoki fakturatu ahal izatea erraztuko du."

Gogoetak

1. Bilbao Bizkaia Uren Partzuergoak kaltetutako etxejabeen elkarteari ur eta saneamendu tasa fakturatzeko dio, bere zerga ordenantzaren aurreikuspenen arabera, bi kuoten aldibereotasunaren oinarriaren gainean ur hornikuntza tasa eta saneamendu tasa konfiguratzeko dituen: kuota finko bat, instalatutako kontagailuaren kalibrearen arabera eta kuota aldagarri bat, egindako ur kontsumo zehatzaren gainean.

Ur horniduretan ere ("*Etxeko erabiltzaileentzako hornidurak, ongintzako saltokiak eta ur beroko instalazio zentralizatuak barne*"), kuota aldakor hori hiru zatitan egituratzen da.

*"Kuota aldakorra 25 m³ -ra arteko kontsumoetarako0,5197 euro/m³
Kuota aldakorra 25 eta 75 m³ arteko kontsumoetarako0,6382 euro/m³
Kuota aldakorra 75 m³-tik gorako kontsumoetarako 1,1458 euros/m³"*

Egitura hau saneamendu tasan errepikatzen da, eta horretan kuota finkoarekin batera isuriaren kuota aldagarria fakturatzeko da. "*Etxeko erabiltzaileen isuriaren, ongintzako etxeak eta ur beroko zentralizatutako instalazioak barne*", kuota aldagarri hau ondorengo da 2015 ekitaldi honetan.

*"Kuota aldakorra 25 m³-ra arteko kontsumoetarako.....0,5201 euro/m³
Kuota aldakorra 25 eta 75 m³ arteko kontsumoetarako 0,6382 euro/m³
Kuota aldakorra 75 m³ baino gehiagoko kontsumoetarako..... 1,1458 euro/m³"*

Kontuan hartu behar da epigrafe berean eta progresibotasun lege berdinen menpe euren tipologiagatik konparatu ezin diren kontsumo batzuk onartu direla, etxeko erabiltzaileen kontsumoa eta ongintza etxe batean edo zentralizatutako ur beroko instalazio bat hornitzeko egin daitekeen kontsumoa bezala.

2. Justizia materialeko irizpide batek hasiera batean kontsumoaren instalazio handi baten eta etxeko kontsumoaren artean ezberdintzea eskatzen du, edo moduluka zatitzea, kontuan hartuz hornitutako etxebizitzaren faktorean Uren Partzuergoak ezartzen dituen tarifen progresibotasuna, ur beroko zentralizatutako instalazioak kaltetuak direnean.
3. Ur eta saneamendu tarifen progresibotasunak kontsumoen arrazoizkotasun printzipio bati erantzuten dio, gizarteak modu baketsuan onartu duena. Modu honetan, tarifa handiagoa ordaintzen da higiezinan ematen den kontsumoa oinarritzkoa eta mugatua den natur errekurtsoarekin arduragabeagoak diren eta errespetu txikiagoa duten kontsumo mailak daudenean. Hala ere, kasu zehatz honetan, hornitutako etxebizitzaren faktorearen tasen eremuen ezarpenaren lotura haustean progresibotasuna ezartzea kaltegarria izan daiteke, familien kontsumoak, hasiera batean gehiegizkoak ez direnak, zigortzen dituelako. Beraz, kasu honetan, progresibotasunak ez du bi tasa hauen kopuruan eremuak sortzearekin lortu nahi den helburua lortzen.
4. Ez dugu aplikazio informatikoa aldatzeak dakarren zailtasuna saihesten, ezta ezarri beharreko tarifa berrien diseinua ere, eta ez dugu Partzuergo horrek arazo honi konponbide egokia bilatzeko duen borondatea zalantzan jartzen. Hala ere, adierazi behar dugu gaur egungo egoera bidegabekeria bat dela, ur beroaren kontsumoa eta etxejabeen elkarte honen berogailu zirkuituak hornitzeko kontsumoa zigortzen duena. Gaur egungo bitza sozialaren oinarritzko beharrak estaltzeko kontsumoak direnean.

Konponbidea bilatzeko atzerapenak familia hauentzako, hiruhilero, ur eta saneamendu tasa 3. blokerak kargatuta duten ur beroko zentralizatutako instalazioan erabiltzen den ur bolumen ia osoa ordaintzeak suposatzen dien ondorio ekonomiko kaltegarriak luzatzen ari ditu.

5. Gure ustez, adierazgarria da ordainagiri batean arazoaren benetako eragina zehaztea. Ateratako datuak erreklamatu duen etxejabeen elkarteari 2012ko lehendabiziko hiruhilekoan erregistratutako eta fakturatutako ur bolumenarekin bat doaz. Komunitate honek kontsumo horiek erabili zituen Uren Partzuergoaren aurrean jarritako erreklamazioaren hedapena azaltzeko.

Fakturatutako ur bolumena. 2.586 m³

1.go blokea, 25 m³-raino, 0,461€/m³

2. blokea, 25m³-tik 75m³-raino, 0,4984 €/m³

3. blokea, 75m³-tik aurrera, 1,0880 €/m³



Hau da, zigortutako kontsumoaren tarifan ordaindu ziren 2.511m³. Hiruhilero errepikatzen den gertakaria da eta 2004tik luzatzen dena, kaltetutakoek aitortu duten bezala.

Adierazi dugun bezala, elkarte hau 316 etxebizitzek osatzen dute, beraz, hiruhileko horretan etxebizitza bakoitzak izandako ur beroko kontsumoa ez zen gehiegikoa, 8,19m³-tan zehaztu baitzen.

Saneamendu tasaren ordainketa gehitu behar zaien tarifak, blokeetan banatua.

6. Ondorioz, erakunde honek azpimarratu behar du berehala tarifen progresibotasunaren zuzenketaren bat gehitu behar dela, gaur egun Bilbao Bizkaia Uren Partzuergoak ur beroko zentralizatutako instalazioei ezartzen dien ur eta saneamendu tarifek duten eragin ekonomikoa murrizten duena.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

Gomendioa

Bilbao Bizkaia Uren Partzuergoak berehala gehitu behar du **ezartzen dituen ur eta saneamendu** tarifetan zuzenketa faktoreren bat, kontuan hartzen duena ur beroko zentralizatutako instalazioek kaltetutako etxebizitzek pluraltasunari euskarria ematen diotela.

